

# Sagardoa, musika... eta desafioa

Martxoaren 19an jokatu da Sagarrondotik jaialdiko herri kirol lehia Urnietan

**M**usika eta sagardoa. Horiexek dira Sagarrondotik jaialdiko osagai nagusiak. Gehien nabarmendu ohi diren ezaugarriak. Baina bada beste ekitaldi erakargarri bat ere. Denboraren poderioz, Sagarrondotik jaialdiko saltsa eta piperran bilakatu den ekitaldia. Bereziki, Urnieta, Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo herri kirol zaleentzat. Sagarrondotik jaialdiko herri kirol lehiak ari gara hizketan. Aurtun, hirugarrenez jokatu da desafioa. Martxoaren 19an, 11:00etatik aurrera, Urnietako frontoian. Irudian ageri den moduan, Usurbilgo taldea gogor ari da lanean.



AGINAGAKO ELIZA ZAHARREAN JO ETA SU ARITU DIRA DESAFIOA PRESTATZEN.

## Iaz hirugarren izan zen Usurbilgo taldea

**I**az urnietarrak nagusitu ziren Sagarrondotik jaialdiko herri kirol desafioan. Sagar biltzen eta garraiatzen, harria jasotzen, txingak lasterketan, lokotx-bilketan eta sokatiran lehenak izan ziren urnietarrak. Bigarren tokian Astigarragako taldea geratu zen, ingudearekin eta gizon proban marka onena lortu eta gero. Hirugarren tokia usurbildarrentzat izan zen, eta laugarrena, Hernaniko taldea.



IAZKO LANA HOBETZEKO GOGO-BIZIZ DIRA GURE ORDEZKARIAK.

### Aurtengo ordezkariak

**Txingak:** Juantxo Zuriarrain, Iker Portularrume.

**Harri jasotzen:** Arkaitz Portularrume.

**Gizon proba:** Mikel Orbegozo, Mikel Aranburu.

**Lokotxak:** Rosa Uribe, Koldo Lertxundi.

**Ingudea:** Xabier Orbegozo.

**Zakua:** Mikel Soroa, Jon Lizaso, Kepa Unanue.

**Sagar biltzea:** Joseba Larburu.

**Sokatira:** Josune San Sebastian, Jose Luis Bruño, Iñaki Errekondo, Aitziber Unanue, Arkaitz Portularrume, Joseba Larburu, Jon Lizaso, Mikel Soroa.

## Martxoaren 19an, herri kirolak eta sagardoa bateginik

**M**artxoaren 19a desafioaren Meguna izango da. Urnietan jokatu da herri kirol saioa. Baina sagardoa ere protagonista izango da.

Goizeko 10.00etatik aurrera, Urnieta jai giroan murgilduko da sagardo dastaketaren hasierarekin. Sagardotegi desberdinetatik ekarritako botilak dastatzeko aukera izango da.

Kale animazioa ere goizeko lehen orduetik hasiko da; karririk jai giroaren pare jarriz dultzaineroekin batera. Sagardo dastaketa gutxi balitz, Buruntzaldeko artisauen lanak ere erakusgai jarriko dira.

Gainera, txahal oso baten erretzea ikus ahal izango dugu. Eguerdian, dastatzeko emango den txahala. Egun paregabea, paraje ezin hobean, giro itzelean... eta gutzia edalontzia erostearen truk.